

IDEIAREN DESKRIBAPENA

Gu Eider Iturralde, Mikel Idiakez, Alex Pérez eta Itsaso Vazquez gara. Gure taldearen izena “selamat pagi” da.

Gure egitasmoaren funtzioetako bat gizarte erabilgarriago eta erosoago bat sortzea da, gauza txikietatik hasita, adibidez mugikorrerako funda bat eta diru-zorro bat elkartzean. Produktu hau “purse&case” deitzen da, eta hainbat abantaila dakartza adin guztietako pertsonentzat.

Gure funtzioetako bat erosleei erosotasuna eta eksklusibotasuna eskaintzea izango da.

Idea honen bitartez, gure bezeroak ez dira gehiago kezkatu behar kalera irteterakoan ea poltsikoetan kabituko zaien behar duten guztia. Izan ere, produktu honen funtzio nagusietako bat lekua aurrezte da, dirua eta mugikorrak leku bakarra okupatuko du eta horri esker bezeroek erosotasuna lortzen dute eta poltsikoak gainezka eramatea saihestuko da.

Erosotasuna eta erraztasuna eskuratzeaz gain, bezeroak eksklusibotasuna ere eskuratuko du. Produktu hau bezeroaren nahi eta gustuetara egokituko da. Bere behar eta nahiak asetuko ditugu. Diru-zorroaren eta fundaren tamaina aukeratu ahal izango du, kolorea ere bere esku egongo da (hainbat kolore aukeratzea posible izango da). Fundaren materiala beti plastikozkoa izango da baina diru-zorroaren materialak bezeroak aukeratu ahal izango gu. Guk larrua eta plastikoa eskainiko ditugu, eta bi aukera horien artean erabakitzeko aukera edukiko du bezeroak.

Kolorearekin lotuta, testura ere aukeratu ahal izango du. Dekorazioaren bat jarri nahi bada posible izango da.

Aukera desberdin guzti hauei esker gure bezeroaren pertsonalitate eta gustuarekin bat datorren produktua lortuko dugu. Gainera, ezin hobea da oparitzeko, erabilgarria eta originala. Beraz, zer oparitu ez dakizunean erraza duzu, *purse&case* bat oparitu! Zer hobe erosotasuna, originaltasuna eta eksklusibotasuna oparitzea baino?



Jende guztiak inbidia edukiko dio zure fundari. Benetako eksklusibotasuna emango dizulako. Gainera, merkea da. 12€-ren truke zure funda eskuratu ahal izango duzu, bitzta guztirako iraungo dizuna. Zure izaera betirako ikusiko da islatuta funda honetan, eta fundez azkar aspertzen zaren horietako bat bazara, erreza duzu beste hainbeste eskuratzeko. Gure web orrian erraztasunez eskatzen baitira produktu hauek: www.fundakexpress.com -en.

Ez duzu asko itxaron beharko produktua jasotzeko, gure azkartasunarekin pare bat egunetan jasoko duzulako eta berehala prest egongo zarelako funda erabiltzeko.

Institutuko errege erregina izango zara **purse&case**-rekin, denen ahotan egongo zara! Denek nahiko dute jakin non erosi duzun, eta bere abantailak kontatzerakoan jendea harrিতuta geratuko da zein erreza den ikusita.

Beraz, ez pentsatu bi aldiz eta erosi purse&case! Esklusibotasuna, originaltasuna, erraztasuna eta zure izaera produktu bakar batean islatuta, zer gehiago eska daiteke bi egunetan jaso dezakezun produktu batengatik?

Eskura ezazu zure produktu pertsonalizatua fundakexpress.com web orrian eta jaso ezazu zurea!

***Purse&Case*: SENTITU ESCLUSIBO, SENTITU EROSO, SENTITU ZEU!**

